

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

“FarraLeku” izeneko aplikazioa sortu nahi dugu. Bertan, Euskal Herriko festa-giroa ezagutarazi nahi dugu. Bertan, euskal gazteek haien gertuko tabernak, diskotekak, dantzalekuak eta herriko festak ezagutu ditzakete. Horrela, non atera ez dakitela daudenean, nora jo dute gure aplikazioaren bitartez.

Erabiltzaileen elkartasunean oinarritzen den proiektua da: nahiz eta mapa interaktiboaren bitartez jendea nora doan eta zein festa-zona ezberdin dauden ikus daitekeen, erabiltzaileek iradokizunak eta argazkiak igo ditzakete besteei informazioa eskaintzeko.